



## OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza  
Plangintza, Antolamendu eta  
Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud  
Dirección de Planificación, Ordenación y  
Evaluación Sanitarias

Ebazpena, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariarena, Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeari buruzko otsailaren 21eko 31/2006 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua herritarrei aldez aurretik kontsultatzeko dena.

Osasun Saila aztertzen ari da ea egokia den xedapen orokor bat egiten hasia Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeari buruzko otsailaren 21eko 31/2006 Dekretua aldatzeko, bertan araututako baimen sanitarioen erregimenean berariaz sartzeko terapia naturaleko tratamenduak – osteopatia, kiropaxia, kiromasaje edo akupuntura – aplikatzen dituzten zentroak. Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeko oinarri orokorrak ezartzen dituen urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuan jasotako arloko oinarritzko araudia garatzeko eta aplikatzeko eman zen 31/2006 Dekretua.

Hori guztia, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Hirugarren Salaren azaroaren 3ko 1310/2021 Epaia edukia ikusita. Kasazio-interesean eman zen epaia eta honako doktrina hau ezartzen du: terapia naturaleko jarduerak aplikatzen diren zentroak (hala nola osteopatia, kiropaxia, kiromasajea eta akupuntura) osasun-zentrotzat hartuko dira martxan jartzeko nahitaezko baimenaren ondorioetarako.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, herritarrei aldez aurreko kontsulta egitea ezartzen du 11. artikuluan. Honela dio:

*"1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako aldez aurretiko kontsulta-izapide horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarteen parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio aldez aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, Administrazioako langile zein herritarra izan.*



2. Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.

3. Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille eta ez-erregulatzailleak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten."

Horrenbestez, alderdi hauek bildu behar ditu kontsultak:

- Ekimena onartzeko premia eta aukera.
- Arauaren helburuak.
- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Egon daitezkeen konponbide arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Era berean, araua aplikatuko den errealitate soziala zehazteko balio behar du, sektore profesional jakin batzuen eremuan duen benetako eraginaren dimentsioa zehazteko.

Horregatik guztiagatik, hogei egun baliouduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta entitateek egokitzat jotzen dituzten iradokizun eta ohar guztiak aurkez ditzaten, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikuluetan araututako aurretiazko kontsultaren esparruan.

Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuaren 10.1 b) artikulua zerbitzu, zentro eta establezimendu sanitarioak – publikoak zein pribatuak – antolatu, ikuskatu, erregistratu eta homologatzeko organo honi ematen dizkion eskumenak baliatuz, honako hau

## EBAZTEN DUT

Lehenengoa. - Aldez aurreko kontsultaren izapidea egitea, 31/2006 Dekretua aldatuko duen izaera orokorreko arau-xedapenaren proiektuarena, hura egin aurretik. Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeari buruzkoa da otsailaren 21eko 31/2006 Dekretua, eta bertan araututako baimen sanitarioen erregimenean berariaz sartu nahi dira terapia naturaleko tratamenduak – osteopatia, kiropraxia, kiromasaje edo akupuntura – aplikatzen dituzten zentroak. Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeko oinarri orokorrak ezartzen dituen urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuan jasotako arloko oinarrizko araudia garatzeko eta aplikatzeko eman zen 31/2006 Dekretua.

Bigarrena. - Arauak eragindako herritarrek, erakundeek eta entitateek, hala iritziz gero, Agindu honen eranskinean azaltzen diren alderdiei buruzko iritzia helaraz ditzakete, hogeit egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 21a

Sin: Mikel SÁNCHEZ FERNÁNDEZ  
PLANGINTZA, ANTOLAMENDU ETA EBALUAZIO SANITARIOKO ZUZENDARIA

## ERANSKI NA

### 1.- Ekimen honen bidez konpondu nahi diren arazoak:

Dekretu-proiektu honen helburu da baimen sanitarioen erregimenean berariaz sartzea terapia naturaleko tratamenduak – osteopatia, kiropraxia, kiromasaje edo akupuntura – aplikatzen dituzten zentroak. Horretarako, egokitu egin beharko litzateke otsailaren 21eko 31/2006 Dekretua Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Hirugarren Salaren azaroaren 3ko 1310/2021 Epaiaren edukira. Kasazio-interesean eman zen epaia eta honako doktrina hau ezartzen du: terapia naturaleko jarduerak aplikatzen diren zentroak (hala nola osteopatia, kiropraxia, kiromasajea eta akupuntura) osasun-zentrotzat hartuko dira martxan jartzeko nahitaezko baimenaren ondorioetarako.

### 2.- Ekimena onartzeko premia eta aukera:

Gaiaren inguruan Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina ezarri ondoren, beharrezkoa da eragiten dien zentroyen baimen-araubidea erregulatzea, horrek dakartzan ondorioekin, eta behar bezala jasota egon behar dute Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko araudian, barne-osasunaren arloko Estatuko oinarritzko legeria garatzeko eta betearazteko eskumena erabiliz emandako araudia, EAeri dagokiona Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 18.1 artikulua aurreikusitakoaren arabera. Estatuko oinarritzko legeria hori, Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeko oinarri orokorrak ezartzen dituen urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuan dago jasota.

### 3.- Landu nahi den arau-proiektuaren helburuak:

Erreferentziako zentroak baimentzeko araubidea ezartzea, haien funtzioei, langileei, instalazioei eta abarri buruzko ebazpenak emateko beharrezko baldintzei dagokienez.

### 4.- Egon daitezkeen konponbide arautzaileak eta ez-arautzaileak:

Planteatzen dena da Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan erregulazio bat egin aurretik, alde batetik, Espainiako Konstituzioak 149.1.16 artikuluan osasunaren oinarriak eta koordinazio orokorra ezartzeko aitortzen dion eskumena baliatu beharko lukeela Estatuak, eta, bestetik, Osasuneko Lurraldearteko Kontseiluak horri buruzko erabakia hartu beharko lukeela, hura baita autonomia-erkidegoen osasun-zerbitzuak elkarren artean eta autonomia-erkidegoen eta Estatuko Administrazioaren artean lankidetzan aritzeko eta elkarrekin komunikatzeko organoa, bai eta sistemari kohesioa emateko eta Estatu osoan herritarren eskubideak bermatzeko, Auzitegi Gorenaren epaia aplikatzean eta betearaztean distortsiorik eta diskriminaziorik sor ez dadin.